

Izena eta deklinabidea

- 1- Aurkitu testu honetan bost izen arrunt eta hiru izen berezi.



Familia bungalowera itzuli zen eta Eiderrek eta Hegoik e zaurituei sendaketa arina egin zieten merkromina eta tiritak erabiliz. Ondoren, kontsolatzeko asmoz, amaitutakoan beraiekin batera Euskal Herrira joatea proposatu zieten, beren herriko txokoan euskal sukaldaritza ezin hobeaz gozatzeko.

Izen bereziak	Izen arruntak

- 2- Osatu testua hutsunetan hitz egokia idatziz.

etxeetan	lagunek	pasadizoak	istorioek
argia	lagunak	etxean	eskerrak

Hiriko _____ ez zegoen argirik, denak lo zeudela zirudien, baina hurbildu nintzenean, gure _____ norbait zebilela iruditu zitzaidan, _____ kontatutako _____ ikaratu baninduten ere, batik bat Gorkaren _____ kontatutako _____ ikaratu ninduen. Horregatik, etxera sartu orduko, _____ piztu eta gure sukaldean sartu zenari muturrekoa eman nahi izan nion. Baina, huts egin nuen, eta _____ ! Izan ere, sukaldean zebilena aitona zen!

- 3- Osatu esaldiak bi aldeak lotuz.

- | | |
|----------------------------|---------------------------------|
| Hirugarren atea zabaltzeko | • poliki-poliki idatzi zuen. |
| Laranja zukua edateko | • ez zuen giltzarik erabili. |
| Loreak uretan jartzeko | • asko ikasi zuten. |
| Azterketa gainditzeko | • loreontzia ekarri genuen. |
| Soinekoa ondo garbitzeko | • laranjak erostera joan ziren. |
| Idazlana txukun idazteko | • lixiba erabili zuten. |